

Filtrorik eta balaztarik gabe

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Zer litzateke filtrorik eta balaztarik gabe idaztea? Ongi gelditu nahi izan gabe, egiatan aritzea. Inoren erranen makulua utzi eta hitzez hitz gure kabuz ibiltzera ausartzea, eroriz eta altxatuz, eroriz eta altxatuz. Irakurleari gustatuko zaion ala ez axolarik gabe.

Badut deus berririk errateko? Denok dugula uste dut. Zenbat eta autentikoa go izan, orduan eta gehiago. Bertzearen ispilu diren neurrian dira interesgarriak norberaren kontuak? Ari naiz ja-

da irakurlearengan pentsatzen. Atzen-du nahi zaitut oraingoan.

Saia nadin. Ez ditut behatzak geldia-raziko teklatuan, ez dut zentsuratuko barne ahotsa. Pausatu naiz dagoeneko. Ze zaila! Ea. Berriz. Lehengoan, eskuak libre buelta bat ematera atera nintze-nean zerbaiten falta sumatzen nuen. Flotatzen bezala sentitzen nintzen NI-RE denboran. Opor eguna zen, koala txikia besorik onenetan zegoen, eta ni koala txikia egoten den bezala, ezine-gonean, dena ikusi, ukitu, deskubritu

nahian. Berriz deskubritu. Filtrorik eta balaztarik gabe.

Sentipen hauek konpartitu nituen bertze ama batzuekin eta segituan identifikatu ziren. Hortxe Adrienne Richek aipatutako paradoxa: beste batzuen esperientziez bertzelakoa izanagatik, norberarena ez da esperientzia bakan bat eta bakantasun-iruditeria hori aldatuz baino ezingo dut bizitza autentiko bat izan. Bai, badakit makulua hartu dudala. Eman denbora, oraindik oinez ikasten ari naiz. •

AstraZeneca eta Ursularen kuleroak

**Xabier Mikel
Errekondo**

Armiarmak amaraun erraldoian nola, koronabirusak atrapatuta dauka mundua. Agintariak hala diote. Baina film dramatiko-enean bezala, baditugu salbatzaileak, farmazia laborategiak. Beraiek dira askatuko omen gaituzten txertoen jabeak, beraiek dira urrean aberasten ari direnak. Baina herritarron iritzia hainbeste (EiTB-) kanalizatu ondoren ziur naiz gehiago zabal batek justifikatu egiten duela laborategien aberaste lizuna.

Eta bitartean, Europar Batasuneko (EB) buru Ursula Von der Leyen minduta dago, AstraZenecari ikerketarako 336

milioi euro aurreratu ondoren akordatutako 400 milioi dosiak ez direlako iristen zehaztu epeetan. Aitzitik, enpresak adierazi du beste kantitate askozaz txikiagoak bidaliko dituela, lasai asko. Iruditzen zait AstraZenecak ahalguztidun-putzekin Ursula maitea kulero-bistan jarri duela eta gonak bildu ezinik dabilela oraindik, masailgorrituta.

Pelikula dirudi, Ursula eta europar agintarien inkompetentzia agerian, eta AstraZenecako zuzendari exekutibo Sorroitz jaun bihozgabea besaulkian erdi etzanik Cohibatzarra erretzen, algaraka.

Argi dago, Ursulak kontratuan ez dituz bermeak zorrozki zehaztu, europa-

rrongana txerto dosien zenbatekoak adierazitako datetan iristeko, eta zioa biotatik bat baino ezin da izan: edo Ursula eta EBko enparauek inozentzia infantilaz jokatu dute hil ala bizikoa omen den partida, edo lobby farmazeutikoarekin duten konplizitatezko harreman biziatuaren ondorio kontzientea izan da.

Batagatik edo besteagatik Ursula maiteak lotsak tapatu beharrean gonari eusten jarraitzen du, baina nago datozen erabakiak barne-errabiaz dituela hartuko, larru beltzean estu jantzita eta fusta eskuan.

“Ederren” esku dago gure osasuna! •